



**PENTSA EZAZUE**  
**HORI BENETAN**  
**GERTATU DELA**

**PENSAD QUE**  
**ESTO HA SUCEDIDO**

**HOLOKAUSTOAREN IKASGAIK**  
**LECCIONES DEL HOLOCAUSTO**



**ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN**



GRUPO ELEUTERIO QUINTANILLA


# 1. JUDUAK GERRARTEKO ALEMANIAR GIZARTEAN



Juduak eta kristauz osaturiko familia mistoa. Alemania, 1929

**H**OGEITA HAMARREKO HAMARKADAN, 503.000 judu bizi ziren alemanian eta 400.000 Austrian, gehienak zeharo integraturik zeuden bi herrialdeotako gizartearen eta kulturaren.

Populazioaren ehuneko bata besterik ez baziren ere, hainbat juduk eginkizun nabarmenak zeuzkaten kultura, arte, profesio, ekonomia eta gizarte bizitzan. Alemaniarrak zuten eragina gutzituz geldotu zen nazismoa etortritakoan.



ALBERT EINSTEIN (zientzialaria) (1879-1955)



ROSA LUXEMBURG (iraultzailea) (1870-1919)



SIGMUND FREUD (sentsaziole eta psikatra) (1856-1939)



EMMA AMALIE NOETHER (matematikaria) (1882-1935)



GUSTAV MAHLER (musikaria) (1860-1911)



LISA MEITNER (zientzialaria) (1878-1968)

## Antisemitismoa

Juduak inguruko gizartearen asimilatuta gertatzeak eta gizarte zein erlijiozko desberdintasunak ezkatutzeak, egoera berri bat ekarri dute non juduak eta kristauak bereizi ezinak baitira (...)

Antisemitismo modernoak ez zen jaiotzearen artean legokeen desberdintasun handi batetik, baizik eta desberdintasun ezak, mendebaldeko gizartearen homogeneizatzetik eta antzinako hesi sozial eta legezkoak suntsitzeak adierazten zuten mehatxutik.

PATRICK GRAND (1989),  
Historical Foundations of Antisemitism.



CECIL GILBERT bere kimikako laborategian barnean, Herbergen, Alemanian.

## 2. HITLER BOTERERA IRISTEN DA (1933)



ADOLF HITLER eta HEINRICH HIMMLER SSn amada Wokabaten, Nuremberg, 1938

**K**RISI EKONOMIKO LARRI BATEN PEAN, langabetuak milioika zirela eta Lehen Mundu Gerraren hondamendiaren ondorioengatik etsita zegoen Alemania Hitlerrek boterea eskuratu zuenean. 1933ko hauteskundeetan botuen % 44 bereganatu zuen. Kantziler izendapena izan zuen Errepublikako presidente Hindenburgen eskutik, baina laster bertan behera utzi zituen erakunde demokratikoak, Parlamentua, udalak...; ondoren, Estatu Buru, Armadako Buru, *Führer* eta *Reichskanzler* (imperio-kantziler) tituluak eman zizkion bere buruari.



HEINRICH HIMMLER (1900-1945), Gestapoaren burua eta jarduera nazistakaren ideologoa

### Nazismoa

Hasiera-hasieratik nazismoak giro nazionalista irrazionala sortu zuen; bertan, banderak, ikurrak, argi-zuziak, uniformeak eta musika non-nahi ageri ziren, erlijio berri baten gisan. Giro horretan zabaldu zuen arraza arioaren gaitentasunaren ideia, estaliaren arraza menperatu eta juduak, belar txar baten gisa, desagerraraztera dituzten zen arraza. Horrela abiatu zen juduen aurkako jazarpen kupidagabea, Alemaniaren gaitz guztien jatorria zireneko akusazioekin.



ADOLF HITLER bere jarraitzailek agur nazia egiten

*Mila bider errepikatutako gezurra egia bihurtzen da.*

JOSEPH GOEBBELS



RUDOLF HESS (1894-1987)  
SSen Jenerala eta Hitlerren abokatu-boloto laguntzailea



HERMANN GÖRING (1893-1946)  
Luftwaffenren komandantea eta Reichstagiko presidentea



ALFRED ROSENBERG (1890-1946)  
Nazi Alderdianren ideologoa




JOACHIM VON RIBBENTROP (1893-1946)  
Kanpo Arazoetako ministroa



JOSEPH GOEBBELS (1897-1945)  
Propaganda ministroa

### 3. BAZTERKETA. JAZARPEN BATEN KRONOLOGIA (1933-39)



Juben jabetzako dendak suntsitak Kristallnachtren gusean, Kristallnachtren

**H**ASIERAN, NAZIEN ERREJIMENAK ez dauka buruan juduak masiboki sarraskitzea. Gerra hasi arte, haien politikaren ardatza da zokortzea, bazterzea, kanporatzea... Juduen jazarpena, maiz indarkeria fisiko, erailketaz eta umiliazioz lagundua bada ere, juduak alemaniar gizartetik eskulditzera zuzentzen da, honako hiru bide nagusi hauetan:

#### HERIOTZ ZIBILA

- 1933an juduak hiritar gisa besteen berdinak izatea, deuseztatutik gelditzen da. Funtzio publikotik, eta kultura-bizitzatik iraitziak izan ziren, eta profesio asko egikaritzea debekatu egin zitzaizkien.
- 1934ko uztailan debekatu egin ziren "alemaniarren eta arraza bitxiko pertsonen" arteko ezkontzak.
- 1935ko maiatzean soldadutzatik salbuestsiak gelditu ziren.
- 1938ko azaroan haur juduak eskola publikoetatik kanporatuak izan ziren.

#### HERIOTZ EKONOMIKOA

Ekonomiari buruzko erabaki multzo bat hartzen da helburu argi batekin: juduen erkidegoa bazterzea eta pobretzea. Hauek izan ziren nabarmenenak:

- 1933ko apirila: nazio mailako boikoto deklaratu zen jabe juduak zituzten negozioen aurka.
- 1938ko azaroaren 9tik 10eko gaua (*Kristallnacht*, *Kristal hautsien gaua*), Alemania osoan juduen eraso izugarria jasan zuten: haien etxeak, dendak, negoziak eta sinagogak olatuak eta erreka izan ziren. Gau berean 200.000 eta 300.000 arteko judu atxilotu eta kontzentrazio-esparruetara igorriak izan ziren.
- 1939ko otsailaren 21ean judu guztiak beren bitxi eta metal preziatuak entregatzera behartuak izan ziren.



1933ko maiatza. Juduak eta ekarriko indibiduetatik idatzitako liburuaren eraketa



1933ko apirila. Nazio mailako boikoto egin zitzaion, jabe juduak zituzten negozioak

#### HERIOTZ POLITIKOA

1935eko irailaren 15ean Reichstageko bilkura berezi batek **Nurembergeko Legeak** onartu zituen. Lege horiek ezartzen zuten zein izango zen judutzat hartua, eta juduei oraindik geltzen zitzaizkien eskubide apurrak deuseztatu zituzten. Handik aurrera ez ziren gehiago alemaniar hiritar izango.

Reichstagen bilkura hura aitxakia hartuta nazi alderdiak jende bilkura erraldoi eta ikusgarria antolatu zuten.

### Der Giftpilz

1938an argitaratutako s «Der Giftpilz» (Perretxiko pozoitsuak) haurrentzako liburu alemanetik hartua.. Irudian ikus daiteke nola boiatzen dituzten haur eta irakasle juduak beren eskoletatik. Horrela, eskolek araztasun ariarra bereganatzen dute. *Li buru horretan, besteak beste, azaltzen zen perretxiko pozoitsuak eta jangarriak bereiztea oso zaila den bezala, zaila egiten zaigula ulertzea juduak zitalak eta gaizkileak direla.*

Titulua: Der Giftpilz. Aukeratu: Der Giftpilz. Aukeratu: Der Giftpilz.

## 4. JAZARPEN BATEN TESTIGANTZA



Judu baten denda desegina. Horradako erasoak sustatzen zituen erregimen naziak herri judua gantzi baztertzeko

### Testigantza

Nire aitaren enpresa "bereiz" hil zen. Inork ez zuen merkataritza-traturik egiten juduekin, ez zegoen salgaiarik, ez bezerorik, ez zen zilegi langilerik hartzea. Kontratatu gero, haien mende zeunden: eskubidea zuten zuri lapurtzeko eta dona kentzeko, eta ezin zenuen ezer egin. Judu batek ez zuen ezertarako eskubiderik. Gogoan dut nire gurasoen lagun jentilek ez zietela laguntzarik eman.

Alemaniar ertainari ez zitzaion axola: zenbat eta judu gehiago erditik kendu, haien aktiboak eskuratzeko aukera gehiago. Alemaniar populazioaren gehiengoak gutzit ados zegoen gertatzen ari zenarekin, eta garailoen alderdian egotearen truke, erabateko sustengua ematen zioten Hitlerri.

JOHN SILBERMAN judu alemaniar eskola-ikaskaren testigantza, Lyn Smith (2005) Holokausoaren ahots abantziak.



Siklo kids batzuek judu baten denda batuko sarbidea gabarratzen, 1930ko apiril.



Judu herria modu sistematikoki izaten zen jendaurreko tsaka eta kido garratzen gai

### Testigantza



ANA FRANK, ama Edith eta ahopa Margotekin, 1939ko martxo

Juduen kontrako neurriak zitu bizian ugaritu ziren, eta askatasun asko kendu zizkiguten. Juduek Dabiden izarra eraman behar dute, beren bizikletak entregatu behar dituzte; ez dute zilegi tranbean ez autoan bidaitzea (...); juduek arratsaldeko hiruretatik bostetara arte baizik ezin dituzte erosketak egin, ilepandegi juduetara bakarrik joan daitezke; debeku dute arratsaldeko zortzietatik goizeko seiak arte kalera irtetea; ez daukate baimenik teatro, zinema eta beste aisialdi publikoko tokietan sartzeko, ez eta ere igerilekuetan, tenis edo jockey zelaietan ez beste kirolatukoetan (...) debeku dute jendaurrean edozein kirolotan aritzea; ezin dira eseri beren lorategietako eserilekuetan arratsko zortzietatik aurrera; ez eta beren lagunak lorategietan; juduek ezin dute kristauen etxeetan sartu; ikastetxe juduetara joatea behartuta daude, eta antzeko gauza asko.

Horrela ematen ditugu egunak: hori ezin dela egin, beste hura debeku dela. Jacquesek beti esaten dit: "Ez naiz ezer egiten ausartzen, debekatuta egongo den beldur"

ANA FRANK (1934), Egunkaria

## 5. GHETTOAK (1939-1942)



VARSOVIAKO GHETTOA. Urne behartsak ghettoko kale batean

**A**LEMANIAREN OPAROTASUN ekonomikoa bermatzeko *bizi-espazioa* ezinbestekoa zela eta 1914-18 gerratean galdutako lurraldeak berreskuratu behar zirelako ideiak izan ziren, besteak beste Hitler 1933an boterera iristarazi zutenak. Ideia horiek bi alditan gauzatu ziren. Lehenean Austria eta Txekoslovakiaren zati bat anexionatu ziren; bigarrenean, Polonia inbaditzea izan zen, ondorioz Bigarren Mundu Gerra ekarri zuena. 1940n Danimarka, Norvegia, Luxenburgo, Herberiek, Belgika eta Frantzia tximista-gerran konkistatu, hurrengo urtean, 1941ean Jugoslavia eta Grezia konkistatu eta Sobiet Batasuna inbaditu ondoren, milioika judu ihesbiderik gabe gelditu ziren, nazien sareetan harrapatutik.

### GHETTOAK

1939ko amaieratik hasita, ekialdeko Europako juduak ghettoetan pilatu zituzten, gainerako populazioetatik fisikoki bananduz. Hiri bakoitzean, zati bat juduentzat erreserbatzen da, *judu barruti* izenarekin ezagutzen dira. Juduak behartuak izan ziren beren etxeak utzi eta barruti horietan bizitzera. Horretarako, han bizi ziren ez juduek ere beren etxeak utzi eta alde egin behar zuten, beren gauzak hartuta. Gainerako jendearekin harremanik izan ez zezaten, ghettoak ibxi egiten zen, lurralde bakartuak bihurtuz. Kontzentrazio-esparru bat bilakatzeko da ghettoak hirien barruan.

Jendearen pilaketak eta janari eskasiak, desnutrizioa eta osasun-egoera izugarri txarra eragiten dute; ospitaleak murriztuak jendez beteak eta sendagairik gabe zeuden. Tifusak eta beste epidemiek berebiziko triskantzak eragin zituzten ghettoetako juduen artean.

Varsoviako ghettoa 1940an itxi zen: 18 kilometroko harrisei batez inguratutik, bertan 470.000 lagun pilatu ziren. 1942ko abuztuan, denak deportatu zituzten: emakume, haur eta gazte, kamioi eta trenetan Treblinka eraman zituzten, eta Berta gelditzen ziren gehien-gehienak, eraikak izan ziren.

Sobiet Batasuneko armadak Varsovia liberatu zuenean 200 judu bakarrik ziraute bizirik, izandako milioi erditik.



KRAKOVIAKO GHETTOA. Familia osoak deportatu zituzten

### Testigantza

*Etsita nago ez dagoela munduan hitzik guk ghettoan jasan genuen izugarrikeria deskribatzeko. Ghettoa kaleetan (...) gorpu pilatuen gainetik pasatzera behartuta geunden: elkarren gainean zeuden pilaturik. Ez genuen egoteko tokirik ere, eta alemaniarren aurka borrokatzeaz gainera, gosaren eta egariaren aurka ere borrokatu behar genuen; ez genuen inolako harremanik kanpoko munduarekin, gutzit bakartuak geunden...*

SMIHA ROTTEN, Majik-en testigantza, Claude Linnemann (2003), Shoah.




KRAKOVIAKO GHETTOA. Ghettoan gizonetako familia judua



*Ehunka persona zebiltzan non nahi eskean; batzuk trapu zaharretan bilduak. Behin bi ahizpa ikusi nituen, gutzit harritu ninduten kanta batzuk kantatzen zihooztela. Horietaiko kanta bat Hoffmannen ipuinak zen. Noraeezan zindoazen, eta kanta hori zeukaten ahoan.*

LYN SMITH (2005), HoloKaustorearen ahotz abiatzak

Beste ghetto handiak honako hauek izan ziren: Lodz, Krakovia, Bialystok, Lvov, Lublin, Vilna, Kovno, Czestochowa eta Minsk. Horieta, hamarna milaka pertsona bizi ziren, bizimodu ikaragarria jasanez.



Ureelak, gorpuzen artean pasatzen, VARSOVIAKO GHETTOA

## 6. "AZKEN KONPONBIDEA" (1942 ezkerro)



VARSOVIARAKO GHETTOA, 1942ko abuzotuan bertan bihurtu zituzten. Trakelarik sarraskitza-esparrua eramanen eta erabak izan ziren

“**J**UDU-ARAZOAREN AZKEN KONPONBIDEA” (*Endlösung der Judenfrage*) izendatu zuten naziek antolatutako plangintza Europako biztanle juduak modu sistematikoan deportatzeko eta sarraskitzeko.

Sobiet Batasuna 1941eko ekainean inbaditu ondoren abiatu zen juduen jazarpeneko urrats berri eta behin betiko hau.

Plangintza borobildu eta abiarazteko 1942ko urtarileraren 20an Wansee herrian (Berlin) hamabosten bat goi agintari bildu ziren, alderdi nazikoak, SSKo kideak eta ministerio batzuetako goi karguak. Han koordinatu ziren gobernu naziaeren sail desberdinetako ekintzak juduak sarraskitzeko.

### SARRASKITZE ESPARRUAK

Horiek izan ziren “azken konponbide” politikanen tresna nagusia; beren egitekoa jendea masiboki erailteza zen; benetako heriotz faktoriak izan ziren.

**Kontzentrazio-esparru** arruntak, berriz, ez zeuden horretarako diseinatuak, atxilotze eta esklabu-lanetarako guneak baitziren. Hala ere, esparru horietan, elikadura txar, lan derrigortu eta tratu txarren ondorioz, heriotz tasa izugarriak gertatu ziren.

Sarraskitze-esparru gehienak, sei, okupaturiko Polonian eraiki ziren. Hauen izan ziren: **Auschwitz**, **Chełmno** (Kulmhof, alemanes), **Belzec**, **Sobibor**, **Treblinka**, eta **Majdanek**.

### DEPORTAZIOAK

Judu jendea ghettoetan sartua izanak asko erraztu zien naziei haien sarraskitze-esparruetara eramateko lana. Beti ere, beste toki batera aldatzen zituztela esanaz. Ghettoetako populazioari sinarazari zitzaizten, lanerako behar izango zituztela, eta horregatik tokiz aldatzen zituztela. Jendea agindua ematen zieten halako ordutan karga lekuan izan zitezten. Bakoitzak fardel bat eraman zezakeen bere arropa eta bibixekin; batzuetan egun pare baterako jan-edanak eramateko baimena ematen zieten. Baina naziek tokiz aldatzea deitzen zutena, helmuga bakarreko deportazioa zen. Helmuga, gas-ganberak.



Camino a los campos de exterminio

### Testigantza

*Egun haietan, ghettoetako kaleetan zehar jende-ilara luzeak ikus zitezkeen; denak toki berera abiaturik, inork ibilarazi gabe eta zaintzarik gabe. Karga-lekuetara zindoazen, askotan maleta handiz kargaturik, alferreko gauzak, gehienak. (...) Zerk mugiarazten zituen? Ghettoan zabalduko bando bat, karga-lekuan bere borondatez aurkezten zen bakoitzari janaria emango ziotela zioena: hiru kilo ogi eta mermelada kilo bat (...) Ehunka, eta baita egun batzuetan milaka pertsonak, gosez akabatzen eta desesperaturik, sinetsi zuten tren haren izugarriko bidaiaren helmugan “hautaketa” bat egingo zela, eta hautatuak izango zirela lan baterako, gogorra, baina bizirik irauteko aukera emango ziena.*

MARCEL REICH-BLANICH (2000), Nire bizitza



KRADOVIARAKO GHETTOA, 1942, hirazi juduak masiboki deportatuak izan ziren





Bizirik (irauk zuten haurreak, AUSCHWITZ, 1945)

**A**USCHWITZ, Oswiecineko (Polonia) aldirietan, eta Krakoviatik hurbil, sarraskitze-esparrurik handiena izan zen. Hainbat esparruz osaturiko gunea zen: Auschwitz I (hasierako esparrua), Auschwitz II-Birkenau (denetan handiena) eta Auschwitz III- Monowitz.



1940ko urtarabik: SS-lokek konzentrazio-esparru bat AUSCHWITZ (Polonia) inguruan erakitzita erabaki zuten.

**KRONOLOGIA**



■ **1940ko uztaila**  
Munizio-biltegi zahar bat errusaketa-labe bihurtzen da.



■ **1940ko azaroa**  
Lehen exekuzioak.



■ **1941eko iraila**  
Ziklon Bz egindako Lehen gaseztatzeak: 600 preso sobietar eta 250 gaiko.



■ **1942ko uztaila**  
Lehen hautaketa Auschwitzeko tren-geltokian. Gaseztatze masiboen hasiera.



■ **1942ko iraila**  
Hilobi-zuloetako 107.000 gorpu atera eta erraustu ziren, heriotzaren usaina ezabatzearentz.



■ **1945eko urtarrilaren 27an**  
Sobietar tropek esparrua askatzen dute.

**Testigantza**

...lehiatuta batera hurbildu ginen, eta han galdetu ziguten ea urrezko hortzen bat bagenuen; ondoren, gure aberkide batek, aspaldiko preso bat, ilduna, gure izenak liburu batean inskribatu zituen eta triangelu hori eta ehuneko xingola bana eman zizkigun. Triangeluaren erdian "U" letra bat zegoen, hungariarrak girela adierazteko, eta xingolan, zenbaki bat; nireak, esate baterako, 64.921 zen. Zenbaki hura alemanez ondo ahoskatzen ikasi nezan aholkatu zidaten: Vierundsechzig, neun, ein-und-zwanzig, horixe izan behar baitzuen nire erantzuna identifikatzea eskatzen zidatenean.

IMRE KERTESZ (2005), Noveketik ez



**PRESENEN KURRAK NAZIREN KONZENTRAZIO ESPARRUETAN**



Ernie J. Hunsley (1993) (left) Nigam: The Theory and Practice of Hate.



## 8. AUSCHWITZ. IRISTEA ETA HAUTAKETA



Haur eta emakumeakon korbiak bat AUSCHWITZera iristen

**A**lemaniako trenbide sarea (*Deutsche Reichsbahn Gesellschaft*) oso garrantzitsua izan zen sarraskitze-makinerian, deportatuak eramateko garraio-bide ia bakarra izan baitziren trenak.

Hasieran 1000-2000 pertsona eramaten ziren, merkantzia eta abere-bagoietan. 1942tik aurrera, arruntak izan ziren 60tik gora bagoi eta 5.000 inguru biktima eramaten zituzten trenak. Bidaian zehar atek hermetikoki itxiak zeuden; deportatuak ez zuten ez edaririk ez janaririk hartzen; ez zegoen komunik, hain pilaturik joaten ziren non nahitaez zutik egon behar behar izaten zuten. Hildako ugari izaten zen bidaia bakoitzean.


### Testigantza

Hamar minutu baino gutxiago behar izan zuten gizon baliagarri ginen guztiok talde batean biltzeko. Besteekin zer gertatu zen, emakumeak, haurrak, zaharrak, alegia, ez genuen jakin ez gau hartan ez beste inoiz ere. Gaur badakigu hautaketa arin eta azalako hartan guztiz erabakia gelditu zela gu guztien arteko nortzuk balio zuten edo ez Reicharentzat lanean jarduteko; badakigu Buna Monowitz eta Birkenauko esparruetan ez zirela gure trenetik sartu laurogeita hamazazpi gizonetako eta hogeita bederati emakumezko baizik, gainerako guztiatik, bostehundik gora, inor ez zegoea bizirik bi egun beranduago. Halaber, gaur badakigu (...) ez zela beti hautaketa sistema hura bera erabili baliagarriak eta ez emankorrak bereizteko, eta aurrerago, beste sistema errazago batera jo zutela: bagoien bi aldetako atezarrak batera ireki, inolako abisurik eman gabe, eta alde batera erortzen zirenak, kontzentrazio esparrura sartzen zituzten, eta besteak, zuzenean, gas-ganberetara.

PRIMO LEVI (2005), Hori gizon bat bada



### Testigantza




Arrapala zen Auschwitzera iristen ziren trenen helmuga. Egun eta gau iristen ziren trenak; egun batzuetan bakarra, beste batzuetan bost, munduko alde guztietatik. Arrapala horretan lan egin nuen 1942ko abuztuaren 18tik 1943ko ekainaren 7ra. Trenak ez ziren amaizten. Nik erraz ikusiko nituen berrehun tren iristen arrapalaren gaineko nire postutik: errutina bihurtu ziren. Eten gabe, alde guztietatik, jendea toki hartara iristen zen, aurrekoiei gertatukoaz deus sumatu gabe. Nik banekien iritsi eta ordu pare batera jende haietako % 90 gasez hila izango zela.

Honela gertatzen zen, esate baterako. Juduz betetako tren bat goizeko ordu bietarako espero zen. SS batek ohetik atera eta arrapalara eramaten gintuen, eskolaturik, gaez... Berrehun inguru gizon izaten ginen. Eta batean argi guztiak pizten ziren (...) metro bakoitzeko SS bat armak prest. Presoek ordian ginen, trenaren zain, aginduen zain. Dena prest zegoenean iristen zen tren. Mantso-mantso sartzen zen (...) Barruko jendeak zirrikutatik zeletan begiratzen zuten, ezer ulertu gabe (...) batzuek hamar eguneko bidaia eginkin helzten ziren (...). Lehen agindua, "Alle heraus!", Denak kanporal izaten zen, eta argi uler zezaten, borrarak dantzan jartzen ziren (...) juduak poteko sardinak bezala zetozen bagoi haietan (...) Eguraldi ona bazen, gerta zitekeen beste modu batean jokatzea soldaduek, talai onez agertzea, eta umore beltzez aritzea, "Egun on andrea, jaitsi zaitze mesedez" eta horrelakoak esanez.

RUDOLF VRBA, Claude Lanzmann (2005), Shoah



## 9. AUSCHWITZ. HERIOTZAREN ZAIN (I)



Lotcia BUCHERWALDeko esparruan

### T AUSCHWITZEKO BIKTIMAK

oki ikaragarri honetara Europa osotik ekarritako milioi bat pertsonatik gora iritsi ziren. Presoen parte bat, eskulana izan zen Auschwitzen inguruko industriaguneetan. Gasez hildakoak normalean ijitoak eta juduak bakarrik izaten baziren ere, kontzentrazio esparru honetan barneratutako ehundaka mila pertsona hil ziren, gosez, eritasunez edo ekekuturik. Horien artean, hainbat espainiar errepublikazale, Gerra Zibilaren ondorioz deserriratuak.

Eskulan esklaboa ustiatu zuten enpresen artean ezagunena IG Farben izan zen. Bere esparru propioa eraiki zuen (Auschwitz III-Monowitz), eta 300.000 langiletik hurbileko lanekoa esklaboa izan zuen beraren mende. Nurenbergeko Auzitegiak enpresa hori zatikatzeko aginduaren ondorioz sortu ziren gaurko Bayer, BSF eta Hoechst; haren jabetzak heredatu zituzten baina erantzukizunak ez. Metall Union eta Siemens ere aritu ziren esparru horietan.



DAVID OLÈRE (1901-1985) Hildakoen janaria biontzat

### Testigantzak

*Bandi Citromek eta neuk goi-goian lo egiten genuen. Gure konpartimentuan bertan baziren beste bi gazte Budapesteakoak. Konpartimentuak egurrezkoak ziren, lasto pila bat, eta zaku bat ginean. Manta bat birentzat genuen, baina udan ez genuen erabiltzen. Jakina, oso estu geunden: nik bira egin nahi banuen, lokideak ere gauza bera egin behar zuen; hark posturaz aldatzen bazuen, nik ere. Baina, beti bezala, loaldi sakonak dena ahozteko aukera ematen zigen.*

IRME KERTESZ (2005), Holarikok ez

*Lanetik itzultzerakoan, gelditzen uzten ziguten; alemaniarrek jazarri egiten ziren eta txakurrak etzan, eta guk belarrak eta hirustak jaten genituen...Beste gauza bat: geneuzkan koltxoien azpitik, paper zati marruskatua ateratzen nuen, berdinu eta bertan marrazkiak egiten nituen. Jakiak marrazten nituen, eta norbaitek eskatzen zidan: "Ogi zati eder bat marraztu dezakezu?" Jendea erotuta zegoen janaria zela eta. Besterik ez genuen buruan. Edo sagar bat; norbaitek eskatuz gero, marraztu egiten nuen. Etengabe ari ginen janarian pentsatzen.*

NESSATO HUNGARARR JUDU baten testigantza



*Esparruan sartzen ziren emakume gehienak prestakuntzarik gabeko nerabeak ziren (...), eskulanetarako erabiltzen zituzten, eta, jakina, hilkortasuna oso handia zen. Baina hori horrela bazen ere, neskek kementsuagoak ziren buruz; ez ziren depresioan erortzen, gizonek, ustu dudanez, jausten ziren bezala. Neskek elkar zaintzen zuten, familia txikien antzekoak osatuz. Nik garbi nuen bakarka irautea ezinezkoa zela; zeure lagunei babesa ematen zenien, eta haien alde borroka egiten zenuen, zeure bizia alde bezalaxe.*

KITTY HART-MOXON neska poloniar juduaren testigantza Auschwitz-Birkenauri buruz

## 10. AUSCHWITZ. HERIOTZAREN ESPEROAN (II)



Nifos mendigarido comida

**Z**er egiten zenuten haurrek Auschwitzen?,  
-galdetu zidan batek orain dela gutxi-  
Jolasean aritzen zineten?

- Jolasean! Han egoten ginen zutik kontaketa bukatu arte. Birkenauen zutik egon nintzen kontaketa guztian. Egarrri nintzen, eta beldurrak jota.

RUTH KLÜGER (1997), Bizirik irauin



### SARRASKITZE-ESPARRUAK ETA BIKTIMA-KOPURUA

CHELMO (41 abo---44 uzt)	152.000 - 320.000
BELZÉC (42 mar---42 abe)	600.000
SOBIBOR (42 api---43 urt)	250.000
TREBLINKA (42 uzt---43 abu)	700.000 - 900.000
MAJDANEK (41 urr---44 uzt)	360.000tik gora
AUSCHWITZ-BIRKENAU (42 urt---45 urt)	1.200.000tik gora

Iturri: STEPHANE BRUCHÉD(1998), Komatu hie zuen orna-ebitza.



### Testimonios

Alkandora hutez lo egin behar genuen, negu gorriko garai hotzenetan ere. Lotokiak gutziz izotzuta egoten ziren, eta horma umelak, jelaz estaliak izkinetan eta leihoen inguruan. Sarritan, blokeetako buruek gau-kontrolak antolatzen zituzten: ohetik aterarazi, eta ohe ondoan edo batzuetan kanpoan formazioan paratzen gintuzten, beste zerbaiz jantzita zeramatenak harrapatzeko. Norbait, esate baterako, galtzontzilloak edo galtzerdiak jantzita atzemanen bazuten, zigorrik ankerrenak jasan behar izaten zituen.

KOGON EUGEN (2005), Alamiarlar kontzentrazio esparruen sistema



Ez begiratu, ez entzun, batez ere "Alargun Alaia" jotzen dutenean, bigarren alambre-hesiaran atzetik banan-banan gizonak barrakoi batetik biluzik ateratzen direlarik, eta "kapoak" haien atzetik banan-banan gerrikoekin kolpatzen badituzte (...) Ez entzun, adituko zenuketen hots bakarra, larrugorriari doazen gizon horien bizkarretan kolpeen hotsa, eta hegan doan gerrikoaren belarriaren hots metaliko.

CHARLOTTE DELBO (2004), Auschwitz eta gero...



Auschwitzeko PRESIDEN ORKESTRA

Egarriak unatzen ninduen, goseak baino askoz gehiago. Egarririk benetan pairatu ez duenak, eta hainbat aldiz pairatu ere, gehiago akordatu ohi da goseak daudenez. Baina kontu egin ezazu zenbat denbora joaten den norbait gosez hil arte, eta, aldiz, zein azkar hiltzen den egarriz (...) Birkenauen, janaria, zopa hura, oso gazia izango zen, ni beti egarriz egoten baimintzen han...

RUTH KLÜGER (1997), Bizirik irauin

## 11. AUSCHWITZ. GAS GANBERAK



DAVID OLÈRE (1942-1945). Erakutsa-libak

**G**ainerako esparruetan ez bezala, Auschwitzen azido zianhidrikoa (Zyklon B) erabili zen sarraskitzetarako. Ezin egokiagoa zen, zeren hermetikoki itxitaiko ganbera batean berehala lurruntzen da, zelulan arnasketa eten eta pertsonaren itomena eta asfisia azkarra eraginez. Azido horrek sorturiko intoxikazioak arnasketa-organoak paralizatzen ditu, izu-ikara, bertigoia eta oka sorraraziz. Auschwitz-Birkenauko esparruan egunero zortzi mila pertsona gaseztatzeko balibideak zeuden.

Presoek bilustu egin behar zuten gas-ganberetara hurbiltzean. Heriotzara zihozatenei ilea moztzen zieten, eta zeukaten guzti-guztia kentzen zieten. Hil ondoren, urrezko hortzak erauzten zieten. Dena aprobetxatzen zen. Ondoren gorpuk erraustu egiten ziren errausketa-labeetan.

### BIKTIMAK

JUDUAK	1.100.000
POLONIARRAK	70.000 - 75.000
LITTOAK	21.000
ERRUSIARRAK	15.000
BESTEAK	5.000

Iturria: FRANCISZEK KIPPER (1991) Auschwitz-Birkenau 361 orrialde



AUSCHWITZ-BIRKENAU, Erakutsa-libak (1943)



Esparruko komandantea oso hurbil bizi da, alambre-hesirik harago. Adreiluzko ebte bat da, eta inguruan, soropil-zelaia eta lorategia: arrosak eta kolore dirdiratsuzko begoniak, urdinez margotutako kaxa batzuetan. Arrosa-sailaren eta alambre-hesiaren artean doa errausketa-laberako bidea. Hildakoen gorpuk garraiatzeko esku-ohak hartzen duten bidea da. Hildakoak egunero daude, eta tximiniari egun osoz dario kea. Egunean zehar, tximiniaren itzala mugitu egiten da pasailekuen arean eta soropilean. Komandantearen haurrak lorategian jolasten dabilta. Zaldietara edo baloiekin jolasten dira, edo komandantea eta presoaren jolasari akten diote.

CHARLOTTE DELBO (2004), Erakutsa-libak eta gero



### Testigantza

Gizonezkoek izugarriko abantaila zuten, zeren asko hogeit eta berrogei urte artekoak ziren, eta lanbidea zeukaten (...) Baziren sarrailagileak, zurginak, etxegileak, igeltseroak, jostunak... Alemaniarrak ondo baloiztatzen zituzten. (...) Emakumeak, berriz, gehienbat nerabeak ziren; zaharagoak baziren ezin zuten esparruan sartu, zeren umeak egiteko adinean zeuden eta haurdun gelditzeko arriskua zeukaten: emakume haurdunak ez zuten bizirik irauterik. Gainera emakume asko beren umeekin iristen ziren, eta bai amak eta bai haurrak zuzuenean gas-ganberara eramaten zituzten.

KITTY HART-MOXON nekak poloniar juduaren testigantza Auschwitz-Birkenauri buruz



Partisano sobietarrak

**N**aziek, mugimendu feministak intelektualitate juduaren asmakuntzat jo zuten. Gizarte patriarkal baten alde egin zuten, non alemaniar andrea emazte eta ama izango zen. Propaganda naziak amatasuna eta etxeko lanak sustatzen zituen.

Bere unibertsoa: **senarra, familia, seme-alabak eta etxea.**

Emakume juduak eta talde jazarrietakoak hilketa masiboetan hil zituzten, gas ganberetan edo eta *Einsatzgruppen* taldeek fusilatuta. Nazismoak tratu umiliagarria eman zien emakume haiei, oinarria zuelarik genero banaketa tradizionalari lotutako kontzeptzio biologizista, patriarkal eta erreazionarioa: a) gizonaren sexu gozamenerako prostituitzen dituzte; b) akuri gisa erabiltzen dituzte ugalkortasun esperimentuetan; c) sexu aukera ez heterosexualak erreprimitzen dituzte.



Esparru nazietan prostituituriko emakumeak

## Emakumeak kontzentrazio esparruetan

Zenbait kontzentrazio esparru eta kontzentrazio esparruetako hainbat eremu emakumeentzako ziren berariaz. 1939an **Ravensbrückeko** esparrua eraiki zuten. 1942an **Auschwitz** emakumeentzako eremu bat sortu zuten eta 1944an **Bergen-Belsen** en beste bat.



Ravensbrückeko emakumeentzako esparrua



Presoak Ravensbrücken

**EMAKUME ERRESISTENTEAK.** Nazien aurkako borrokan emakumeak bizkorrak izan ziren oso. Hainbatek erresistentzia armatuan parte hartu zuten. Beste hainbatek, jazarriak babesteko eta gordetzeko sorturiko sare klandestino edo sasikoetan. Kontzentrazio esparruetan ere baziren sare eraginkorrak emakumeen partehartze nabarmenarekin.



WLADYSLAWA CHOMS

"L'ovoko aingerua" gisa ezaguna zen. Juduak laguntzeko funts bat antolatu zuen janari, diru, osasun arreta eta nortasun agiri faltsuak eskaintzeko.



SARIKA YEHOSHUA

Calcis hiriko (Grezia) partisano judua. ELAS partisanoen mugimenduko kidea. Emakume gazte partisanoen unitate bat antolatu zuen. Gudariak ziren eta iheslariak laguntzen zituzten.



ERIKA MANN

Idazle eta aktorea, lesbiana eta ezkertiarra izateak nazismoaren jomagan jarri zuen. Bere obrarekin nazismoa borrokatu zuen erbestetik, Nurembergeko Epaiaketen berri bertatik eman zuten emakume bakarretakoa izan zen.



NEUS CATALÀ

Ravensbrückeko esparruko azken espainiar bizirik irteadakoa. Bere aitak eman zizkion kontzentrazioa eta ideal feministak eta komunistak. Catalak eta harekin batera osatu Alferrontzien Komandoko kideek nazien 10 milioi bala ezgaitu zituzten.



Erto famak Poloniako BELZCEKO esparran

**J**uduak ez ziren biktima bakarrak izan. Holokaustoa sarraskituriko sei milioi haur, emakume eta gizonezko juduez gain, izan ziren nazien jazarpena bereziki jasan zuten beste giza taldeak: komunistak, sozialistak, Jehovaren Lekukoak, homosexulak, ijitoak, persona minusbaliatuak, poloniar hiritarrak, errusiar gerra-presoa...

2. MUNDU GERRAN  
50 MILIOI PERSONA HIL ZIREN,  
ZIBILAK ETA MILITARRAK



**HELENE GÖTTHOLD,** Jehovaren lekukoa, eta bere seme-alabak burua mozturik hil zituzten beren sinismenengatik. Jehovaren lekukoek beren burua salbu eduki zezaketen beren erlijioari uko egin ez. Gehienek ez zuten onartu, eta asko, %25 inguru, esparruetan hil ziren.



**EMMI G.,** hamasei urteko neska, eskizofrenia diagnostikatu zuten. Lehen esterilizatu egin zuten eta Meseritz Obrawalde eutanasia gunean hil zen.



Karl B. homosexualak Auschwitzeko esparrura iritsitakoan hartutako argazkia Homosexualitate akusazioa zuten preso bat, Auschwitzera iritsi eta gero hartutako argazkiak. Handik urte betera bertan hil zen.

Testigantza

1942 inguruan, ghettoaeren mutur batean, ijitoen esparru bat eratu zuten. *Negua zen, hotz handia zegoen. Naziek solairu-ete bloke bat hartu zuten, eta leiho guztiak apurtu zituzten, bertan bizi zirenak hotzez hil zitezten.*

MICHAEL ETKIND, jodo poloniar gantea, Ludzko Ghettoa


Holokaustoaeren ondoan homosexualen testigantza sozialki entzun ezina, ezinezkoa eta arriskutsua zen.

MICHEL CELSE, Webgunea Culture-et- débats

Bizirik atera zen PIERRE SEELek kontatzen zuen Altsaziako Mulhouseko homosexualen komunitateko partaidea izan zela eta horregatik atxilotua. Handik Natzweiler -Struthofeko kontzentrazio-esparrura bidali zuten. Han, goizero ikuskatze bat egiten ari zirela, komandante naziak exekuzio publiko bat izango zela iragarri zuen. Exekutatu behar zuten gizona kanpora atera zuten, eta Seelek ezagutu egin zuen: Mulhousean hemezortzi urteko bere maitalea izandakoa zen. Seelek kontatzen zuenez, soldaduek gizon hura larru gorritan utzi, eta metalezko pertz bat jarri zioten buruan. Ondoren, txakur ikasi batzuk askatu zituzten, haren kontra xaxatuz. Txakurrek hozka haren gorputz bizia urratu eta desagin zuten hil arte.



Propagandako horma-irudi nazia, Horrelakoekin justifikatzen zen minusbaliatasunen bat zuten pertsonak eliminatzea.



Topa estatubatuarnek MAUTHAUSENGO esparrua libratu zuten. Boink irau zuten preso espainiarrek ongietorria eman zieten 1945eko maiatzaren 5ean

**F**rantzia 1940. urtean atxiloturiko 9.000 inguru espainiar errepublikazale nazien kontzentrazio-esparruetan egon ziren. Aberrigabeak ziren, Francoren gobernuak egoera horretan jarri baitzituen. Haietako gehienak Mauthausenen izen ziren, baina izan ziren hainbat Buchenwalden, Dachau eta beste esparruetan ere.

Kalkuluen arabera, bi heren, gutxi gora-behera, gas-ganberetan edo errausketa-labeetan bukatu zuten, edo bizia galdu zuten SSKoen tratu txarren, bortxazko lanen, eritasunen, hotzaren edo, besterik gabe, gosearen, ondorioz.



- ▲ Espainiarrak Mauthausengo kontzentrazio-esparruan.
- ◀ Esparruko Janik neketsu eta gogorrenetakoa zen harria ataritzea. Lan-eguna amaitutakoan, 186 milioiko eskailera igo behar zuten, bakoitzak granito-bloke bat zeramala. Neguan eskailera izozturik zagoenez, labantzeak bertan hiltzea esan nahi zuen.

## Testigantzak

*Zur eta lur geratu nintzen plaza ikaragarri handi hura ikusi nuenean, dena preso z betea, biziak baino arago, gorpu ibiltariak ziruditenak, denak marra txuriz eta urdinezko jantziekin, eta egurrezko bota ospetsu haiek oinean zituztela. Askok ezin zituzten lurretik altxa ere; ez zeukaten indarrik, ez eta oinak lurretik altxatzeko, ez ziren berrogei kilotik gora. Haietako askok, beren galtzetako atzealdea zikima zeukaten, zeren eskura iritsitako edozein gauza jan ondoren beherako ikaragarriak harrapatzen zituzten eta egun gutxitan hil egiten ziren.*

GALD RAMOS (2002), Informetik hizirik ateratzea




*Urez betetako upel batean sartu zuten gehiago ezin zuen arte; makilaz jipoi izugarria eman eta hamar minutuko epea jarri zitoen bere burua urkatzeko. Bere gerrikoa erabili zuen.*

BENTO BERMÉJIO (2002), FRANCISCO BOK, Mauthausengo argazkilaria

*1941eko ekainaren 21ean, 5.000 preso inguru, egun osoa egun sentitik, eman zuten biluzik, SSKoen zaintzapean, desinfekzio orokorra egiteko.*

BENTO BERMÉJIO (2002)



## 14. OROITZAPENAREN BETEBEHARRA



JUDISCHES MUSEUM, Berlin. Nazien espartuetan bitzandako izu-klara transmisibletan duen eszenagrafiarikabakia

**B**izirik iraun zutenetako azkenak hil ondoren, inor ez da gauza izango haragi errearen usain hura ezagutzeko. Baina horrek ez du esan nahi holokaustoaren oroimena bukatuko denik, zeren oroimenaren xedea egindako krimena indarrean aldarrikatzea denez, izan eta izango da oroimena, baldin eta datozen belaunaldiak politikaren (...), moralaren (...) edo egia-oren kontzeptu bat garatzen badute zehinetan onartuko den ezkutaturiko sufrimenduek guk dugun ezagutzeko eta jarduteko moduari eragiten dietela.

MANUEL REYES MATE (2006), El País, urtarrilaren 27



**FRANCISCO BOIN** (1924-1951) Berrietako espainiar armakorik baxena Mauthauseneko deportatua. Mauthauseneko iraberrak zuten antzoniaren, eta frogak gisa baliatu zituen Nurembergoko epaiketan.



**HANNA ARENDT** (1906-1975) XIX. Mendeko okra intelektualak hartzearen baten egilea. Judoa zenez 1938an galfarazi egin zituen Nemaniala unibertsitatean irakarki jardutua. Parisa ilhas egin zuen non bertan babestutako judioak laguntzen aritu zen eta ondoren Estatu Batuetara emigratu zuen. Berriak idatziak, kontzesaren idazkari, totalitarismoa eta Shoah-ek, ezinbesteko erreferentzia dira garaia hartako gertakariak aztertzeko.



Emakume gerra-pressak, Václav Špála 1945



**HAINA OLDMUCKI**, 1915an jaiotako, Mauthausenetik bizirik iratza. Mauthauseneko iraberrak zuten antzoniaren espartuetan bitzandako izu-kararen indutik adierazi zituen.



SHOAHKO MEMORIALA, berrien murrak, Paris (2005)



Haur poloniarren iratza, 1943, Hildaga Weisova.



**HELGA WEISOVA**, 1944an Auschwitzera deportatua. Bere atzetik eman baitzen "Zuk, memoria izustean dutun gutxi" haren ahizkari jarraitu espartuetatik bizimoldo berak nolabait irustean zuten adierazi zuten hainbat lanetan.



HOLOKAUSTOAREN HISTORIAREN MUSEOA Jerusalem (1982)

### Oroitzea

*Oroitzea betebeharrak da; haiek, bizirik irten zirenak ez dute ahaztu nahi, eta, batez ere, ez dute nahi munduak ahaztea, zeren eta ulertu baitute beren esperientziak bazuela zentzu bat, eta espartuak ez zirela historiako istripu edo ustekabe bat izan.*

PRIMO LEVI (1988), Mauthausen zirenak eta salbata zirenak



EZUARBERKEREN TOPOGRAFIKA MUSEOA, Berlingo Prinz Albert Strassen, SShoen bako nagusien egotza izandako erakiltzen fondakinen gainean eraikia, Egotza horietako zuegaten errepresentatu, torturatu eta erail zituzten nazien erregimenari aurka egin zioten langileak, intelektualak, artistak... iraberrak eta maita pertsona.



OROTARRIA HOLOKAUSTOAREN BIKTIMEI, Xixon (2000)

Oroitarrak batek transmiti dezake gertaturikoa, edo abiapuntua besterik ez da?



## 15. ITZUL DAITEKE BERRIRO BASAKERIA?



Immigrameak kausko batean

**H**istoria ez da inoiz errepikatzen modu berean (...) [Egun, atzo bezala], logika hilgarri berari loturik segitzen dugu. Pentsatu beharko genuke nolako papera izan zuen orduan, eta duen orain, aurrerapenaren mitoak. Paralelotasun kezagarriak sumatuko genituzke.

MANUEL-REYES MATE

### Ez ahazteko

*Ez dugu ahaztu behar (genozidioan) parte hartu zuten persona gehienek ez zituztela tirokatu haur juduak, ez eta gasa jaurti ganberetan... Asko eta asko burokratak ziren, memorandumak idatzi, aurreproiektuak prestatu, telefonoz hitz egin eta konferentzietan parte hartzea mugatu ziren. Jende asko desegin zuten beren idazmahaietan eserita.*

RAUL HILBERG (2005), Europar juduen santifiketa

### Atzoko GENOZIDIOAK

Historian zehar beste **basakeria handiak** egin dira. Mundu modernora mugaturik, nabarmentzekoak dira Afrikako bizilagunen zati garrantzitsu bat **esklabo** bihurtzea, **Amerikako indigenen** sarraskitzea, eta ondasunak harrapatzea, turkiar armadaren esku miloitik gora **armeniar** hiltzea, Sobiet Batasuneko **gulaga**, ia milioi bat **tutsi** Ruandan asasinatzea...



Kanbotoak genozidioaren biktimak

*Gutako nor dago zelatan behatoki arraro horretan, boroero berriak iristear daudela abisua emateko? Beren aurpegia eta gurea benetan desberdinak al dira? (...) Hemen gaude gu, hondamendi horiei zintzoki begiratzeko, monstro zaharra hondakinen azpian hiliak balego bezala (...) guk, hori dena garai jakin bati, eta herrialde bakar bati zegokiolara uste imintzioa egin genuenok, eta gure inguruari begiratu nahi ez dugunok, guk, garraisia entzuten ez dugunok.*

ALAIN RESNAIS (1955), Noche y niebla,

### Gaurko GENOZIDIOAK?

Baina okerrena beti ere gerta daiteke, eta gaurko egunean basakeriaren mehatxua gainean dugu.

Jean Zieglerrek esan zuen gosea "genozidio isila" eta "gizateriaren aurkako krimena" zela, eta gosea desagertarazteko nazioarteko ahaleginak porrotatu izan direla. Jean Zieglerrek deklaratu zuen **egunero 100.000 pertsona gosez hiltzen direla, munduan badagoelarik 12.000 milioi pertsona, gaurko munduko biztanleriaren halako bi, elikatzeko adina baliabide. Ez da patua, ez da goi lege bat, ez eta Jainkoaren agindu bat, asasinaketa bat da. Gosearen biktimak bakoitzeko hiltzaile bat dago. Erabakitako sarraski baten aurrean gaude, egunero, halako normaltasun izoztu batean gertatzen dena.**

JEAN ZIEGLER Nazio Batuen elkarturako eskubidearen kontalaria, 2001.



**Eta zer esan gaixotasun sendagarrien biktimizek, etxerik ez duten milioika pertsonen, gerra ahaztuen errefuxiatuek? Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek? Prostituzioan bizi diren neskato-mutikoez? Noren biktimak dira?**

**Basakerian pentsatzea, humanismoa birsortzeko lan egitea da...hari aurka egitea da**

EDGAR MORIN